

Larunbatean Leizaran Eskubaloi taldeak antolaturiko VIII. Errege Txapelketa ospatu zen andoainen. Allurralde Kirolegia eta Arrate Frontoian jokatu ziren partidetan Iparraldeko Anglet Olimpique, Bizkaiko Urdaibai eta San Adrian eta etxeko taldeak hartu zuten parte, emakumezkoen infantil, kadete eta jubenil mailetan.

Infantilen partidak Arraten ospatu ziren, bost talde lehiatu zirelarik arerio guztien aurkako partidak jokatuz. Leizaran A-k jokatutako lau partidak irabazi zituen eta horrela infantil mailan nagusitzea lortu zuen. Saillkapeneko hurrenkera honakoa izan zen; Leizaran A, Anglet, San Adrian, Urdaibai, Leizaran B.

Kadete mailan etxeko taldeaz gain Bilboko San Adrian eta Bermeo/Mundakako Urdaibai taldea aritu ziren. Urdaibaiko neskek nahiko erraz lortu zuten txapelketa irabaztea, jokatutako bi partidak irabazi baitzituzten. Bigarren postuan San Adrian sailkatu zen eta hirugarrenean Leizaran.

Jubenil mailan lau talde lehiatu ziren, goizean finalerdiak jokatu zituztelarik. Arratsaldean 3. postuaren lehian Leizaran eta Urdaibai aritu ziren, partida berdindu baten ostean Bizkaitarrek bi goletako aldearekin irabazi zutelarik. Eguneko azken partida jubenil mailako finala izan zen eta bukaera borobila eman zion partidak egunari. Anglet eta San Adrian ziren aurrez aurre eta hasieratik partida oso parekatua izan zen, amaierara 24ko berdinketarekin iritsi zirelarik. Finala penaltietan erabaki behar izan zen, Angeluko neskek hirurak sartu zituzten, Bilbokoek ordea hirugarrena huts egin zuten eta txapelketa Angelura joan zen.

Egunaren amaieran sari banaketa izan zen, talde guztiek jaso zutelarik oroigarria. Sari banaketan Manolo Alaña (Leizaran Eskubaloiko Presidente), Joxe Mari Iztueta (Gipuzkoako Eskubaloi Federakuntzako Presidente) eta Kattalin Olasagasti (Akaba Bera Berako Jokalaria) aritu ziren.

Leizaran Eskubaloi taldeak eskerrak eman nahi dizkie txapelketara etorritako taldeei zein bertara gerturaturiko zaleei. Eskerrak ere laguntzen ibili ziren guztiei, bereziki Zumeatarra eta Peña Santa Krutz elkarteetako kideei.

Anglet Olimpique (Angelu-Iparraldea)
 Urdaibai (Mundaka/Bermeo-Bizkaia)
 San Adrian (Bilbo-Bizkaia)
 C.D.B. Leizaran (Andoain)

INFANTIL NESKAK			
PARTIDAK			
Leizaran A		Leizaran B	
Urdaibai		Anglet	
San Adrian		Leizaran B	
Leizaran A		Anglet	
Urdaibai		San Adrian	

SAILKAPENA	
1-	Leizaran A
2-	Anglet
3-	San Adrian
4-	Urdaibai
5-	Leizaran B

Leizaran B		Anglet	
Leizaran A		San Adrian	
Urdaibai		Leizaran B	
San Adrian		Anglet	
Leizaran A		Urdaibai	

KADETE NESKAK			
<i>PARTIDAK</i>			
Leizaran	13	San Adrian	14
San Adrian	17	Urdaibai	21
Urdaibai	26	Leizaran	7

JUBENIL NESKAK			
<i>PARTIDAK</i>			
Anglet	23	Urdaibai	17
Leizaran	16	San Adrian	17
<i>3º - 4º;</i>			
Leizaran	14	Urdaibai	16
<i>Finala;</i>			
Anglet	27	San Adrian	26

<i>SAILKAPENA</i>	
1-	Urdaibai
2-	San Adrian
3-	Leizaran

<i>SAILKAPENA</i>	
1-	Anglet
2-	San Adrian
3-	Urdaibai
4-	Leizaran